

► ZARAUZ/SANPELAIOK'98

Dirurik gabe, baina festarako prest

■ Udalaren dirulaguntzarik gabe gelditu da aurten Txosna Batzordea. ■ Sanpelaio jaietarako egitaraua antolatu du hala ere. ■ Joko berezia prestatu dute Euskal Herrian Euskarazen txosnan.

Gehienok Sanpelaioan gaur gauean murgilduko bagara ere, Zarauzko Txosna Batzordea aspaldidanik ari da herriko jai hauek prestatzen eta, urtero bezala, aurten ere txosna gunerako egitaraua prestatu du. Txosnak, aurreko Sanpelaioan bezala, malekoian jarriko dira.

Gari BERASALUZE

Txosna Batzordea osatzen duten taldeei dagokien moduan, batzuek Sanpelaioan izaten dute txosna jartzeko aukera eta besteek, berriz, Euskal Jaietan. Aurten, Euskal Herrian Euskarazek, Zarauzko Batzar Antimilitaristak, Sorginak Emakume Asanbladak eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak izango dute txosna.

Txosna izateaz gain, ordea, talde hauek txosnetako egitaraua ere antolatu dute hurrengo egunetarako. Hala ere, Udalaren laguntzarik gabe gelditu denez batzordea, hainbat arazo izan dute hau antolatzeko. Txosna Batzordeak asteartean emandako prentsaurrekoan azaldu zituen azken asteotako gertaerak eta Udalak batzordea dirurik gabe uzteko arrazoiak.

Txosna Batzordearen esanean «turismo bulegotik deitzen diete urtero herriko talde guztiei festak antolatzen parte har dezaten. Gorabehera batzuk direla eta, ordea, Txosna Batzordeak ezin izan zuen bilera hartara agertu. Hori dela eta, geroago joan ginen turismo bulegora, jadanik gure egitaraua eginda genuenez hura aurkeztera. Bertan, ordea, aurre-



Musika Plazako kokapena utzi eta malekoira joango dira aurten.

Javier GALLEGO

kontua dagoeneko bete zegoela eta, beraz, ez zegoela guretzat dirurik esan ziguten. Dena dela, badaezpada ere Kultura Batzordea bidali gintuzten. Han gauza bera esan ziguten: dirurik ez zegoela eta ezin zutela ezer egin».

Txosna Batzordeak adierazi zuenez, «nahi dutenean ateratzen dute dirua nahi dutenerako eta hala esan genien. Borondatea izanzen gero guretzat ere atera dezakete dirua. Orduan, Kultura batzordeburuak garbi adierazi zuen denok bagenekiena, ez zutela prest guri dirua emateko, batzordean dauden zenbait talderi dirua ez ematearren, Jarrairi

edota Amnistiaren Aldeko Batzordeari, esaterako». Hori esatea, Txosna Batzordearen esanean «ez da ulergarria. Herriko hainbat taldek txosna jartzen badu, dirurik ez duelako da. Dirua izango bagenu, ez ginateke txosnan lanean ibiliko herriko jaietan».

Urteko plangintzatik

Kontuak kontu, Txosna Batzordea Sanpelaioak antolatzeko dirulaguntzarik gabe gelditu da eta, beraz, txosnetako egitaraua osatzeko dirua txosnak dituzten taldeek jarri dute. Batzordeak salatu duenez «honela, txosnak

jarri ditugun taldeok gure urteko plangintzatik kendu behar izan dugu dirua festak antolatzeko, Txosna Batzordeari zegokion dirua eman ez digutelako».

Azkenean, antolatu den egitaraua honakoa da: bihar gaueko 11.30ean Frijolo, Fumut eta Atxantatu taldeen kontzertua izango da txosnagunean. Larunbatean, berriz, herri bazkaria egingo da bertan 2.30ean eta txartelak txosnetan egingo dira salgai gaur gauek aurrera mila pezetan.

Larunbat gauean, azkenik, 11.30etik aurrera Ihesi, Eguzkian eta Parasma taldeen kon-

tzertua izango da. Txosna Batzordeak gogoratzen duenez, gero, txosna bakoitzak bere bereizgarriak izango ditu eta egitarauak biltzen dituen ekitaldiez gain Sanpelaioak txosnetan giro onean pasatzeko aukerarik ez da faltako. Aurten, esaterako, aurreko asteko gertaerak direla eta —Inigo Ameztoi intsumitu eta Mikel Elorza abokatu zarauztarren espenperatzea eta auzipertatzea— Euskal Herrian Euskarazek joko berezia prestatu du bere txosnarako. Atzo arratsaldean, taldearen txosna jarri zen ari zirela, «puntaria ona izan eta euskararen etsaiei emanez gero, txosnan hainbat sari eskura daitezkeela» aurreratu zituzten.

egin
F.M. 102.0 F.M. 103.0
F.M. 104.0

Zuzenak eta guztiz berak... Taberna
XIMUT
Bixkonde Kalea, 3 behea
20800 ZARAUZ • Tel. 943-83 24 34

Marina Txiki
taberna
Lonja Zaharra, z/g • Tel. 943 83 00 17 • 20800 ZARAUZ

TXIKI POLIT
PENSIOA
TABERNA
JAIETXEA
Hainu eta T.D. duten logelak
Pentsio osoa
edo pentsio erdia.
Musika plaza Tf.: (943) 83 53 57
ZARAUZ

Bar - Restaurante
SAKANA
MENU DEL DIA
Las nuevas dueñas os ofrecemos un esmerado servicio de bar y comidas
Zigordia kalea, 35 • Tel. 943-83 56 30 • 20800 ZARAUZ

MAXI-EROSKI
Arralde
KAFETEGIA - JAIETXEA
Menuak
Parritan erretako arrain edo haragiak
Arabako kalea, 41
Tel.: 83 44 33
20800 ZARAUZ

ERROTABOAL
KINKILADENDA
• Lanerako arropa urdifiá
• Eskola-mantailak • Mihisateria
• Baserritar jantziak
K.Nagusia, 21 - Tel. 943-13 24 02 - ZARAUZ